



# SARRERA

Kaixo! Gu Cervezas Manolo taldea gara. Lehenengo bistaz ikus dezakegu izena nahiko xelebrea dela baino horrek ez du esan nahi produktua ona eta kalitatezkoa ez denik. Tadean lau pertsona gara: Haizea Sanchez, Naiara Sanchez, Nerea Iturralde eta Edurne Goikoetxea. Étagère apaltxoaren bitartez, gure gailuak babesteaz gain, jendearen bizimodua erraztu nahi dugu, baita ingurumenean ditugu baliabideak zaindu ere. Gure proiektua interesgarria iruditzen bazaizue, jarraitu irakurtzen, ea gustatzen zaizuen!!